

ZERGA POLITIKA



EGOERA

Kasu gehinetan, politika fiskalek ez diete erantzun egokia eman herritarren oinarriko premiei, ez, behintzat, modu proportzionatuan eta berehala, ez baitute bermatu aberastasuna arian-arian eta bidezko moduan birbanatuko denik diru-sarreraren araberako aurrekontu-politika baten bitartez.

Horregatik jasan ditugu murrizketak, eta horregatik ez dugu izan behar adina baliabide lehentasunei erantzuteko. Joera hori areagotu egin da EAEn azken urteotan; izan ere, PNV-PSE-PP triunbiratuak kontraerreforma fiskalari ekin dio EH Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundian diseinatutako eta, zenbait

kasutan, ezarritako proposamen oso garrantzitsuak baliogabetzeko asmoz.

Bestalde, zerga-arloko eskumena Lurralde Historikoei dagokien arren, Eusko Jaurlaritza da erantzule herritarrentzat biziki garrantzitsuak diren gaietan. Erantzukizun hori izan arren, Jaurlaritzak ez du protagonismo handiagoa izan politika fiskalak landu eta ezartzeko garaian, eta ez da bete honako helburu hau: administrazio bakoitzak bere eraginpeko herritarren premiei eta eskubideei erantzun egokia emateko helburua.

HELBURUAK

Datozen lau urte hauetan, guk lortu nahi dugun politika fiskalaren oinarriak unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna izango dira, gizarteak sortu eta administrazioak kudeatzen dituen baliabideak biltzeko garaian.

Politika fiskal horien helburua –mailakatua betiere– zera izango da, egungo presio fiskala areagotzea Europar Batasuneko estandarren pareko izan arte; hartara, babes sozial publikoa eta garapen ekonomikoa lortzeko politika egokiak garatzeko erabateko gaitasuna lortuko dugu.

Gure ustez, helburu horiek administrazio eskudunen eta pertsona fisiko edo juridikoen arteko harremanean eragin behar dute, baina ez harreman horretan bakarrik: berdintasun-printzipioari jarraikiz, euskal administrazio guztien arteko harremanean ere eragin behar dute.

Politika fiskalen ahalmena ez dago soilik ezarri nahi den ereduaren baldintzapean, politika horietako bakoitza zehazteko eta garatzeko gaitasunak ere baldintzatzen baitu; hortaz, gobernuaren eta erakunde guztien ekintzaren helburu nagusietako bat erabateko subiranotasun fiskala lortzea da, hemen har ditzagun zerga guzti-guztiei buruzko erabakiak.

NEURRIAK

1 Erreforma fiskala egiteko proposamena aurkeztea zerga-sistema bidezkoagoa, mailakatua eta ekitatiboa izan dadin, eta horretarako, Euskal Autonomia Erkidego guztian presio fiskal global baliokidea izatea bermatuko duen harmonizazio-mailara iritsita. Proposamen horretan, gutxienez, honako puntu hauek sartuko dira:

Presio fiskal globala gutxienez hiru puntu handitzea, Europako batez bestekoarekin parekatzeko arian-arian.

Sozietateen gaineko zerga aldatzea, sinplifikatzeko eta bidezkoagoa eta eraginkorragoa izateko.

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga bultzatzea lurralde guztietan.

Zerga-sistemari buruzko eztabaida publikoa jendartean egiteko oinarriak finkatzea; zehazki, ereduai, helburuei, baliabideei eta proposamenei buruzko eztabaida izango da, eremu erabakigarri baina ilun hori jendartera hurbiltzeko eta demokratizatze asmoz.

PFEZa aldatzea, egungo zerga soldata-errentara gehiegitxo bideratuta baitago.

2 Zerga-sistemari dagokionez, subiranotasun-maila handiagoa lortzeko neurriak abiaraztea, politika osatuak eta koherenteak garatu ahal izateko. Neurri horiek guztiak honako hauek, gutxienez, lortzera bideratuko dira:

BEZaren eta zerga berezien gainean erabateko eskumen-gaitasuna lortzera.

Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Kontseiluan zuzenean parte hartzeko helburua duten estrategiak diseinatzea.

3 Zerga-iruzurraren aurka egiteko neurriak areagotzea; horretarako, besteak beste, giza baliabideak eta baliabide teknikoak gehituko dira, informazio-truke masiboak ugaritu, eta enpresa handi eta nazioarteko eragiketei dagokienez, araugintzako eta ikuskapeneko ahalmen handiagoa lortu behar da; halaber, honako hauek sartuko dira:

Zerga Iruzuraren aurkako Euskal Behatokia.

Legealdiko helburua zera izango da: iruzur egindako zergak (2,250 milioi euro, gutxi gorabehera) arian-arian berreskuratzea.

Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasuneko Legea eta Lege horrekin lotutako legeak aldatzea, helburu hori lortzeko.

AIPATUTAKO NEURRIAK ABIARAZTEA.

Goian aipatu dugun proposamena Finantzen Euskal Kontseiluan eta Zerga Koordinaziorako Organoan garatuko da, eta proportzionaltasunean, koordinazioan, lankidetzan eta harmonizazioan oinarrituko da, zerga-sistema mailakatuagoa eta ekitatiboagoa lor dezagun erakunde eta lurralde guztietan.

